



ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ EZ BAITA ONARTZENXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK, ARABAKO KARATE FEDERAZIOAREN PRESIDENTEAK, KARATEKO HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN 2017ko URTARRILAREN 11ko 2 ZENBAKIDUN EBAZPENAREN AURKA ETA HAUTESKUNDE-BATZORDE HORREK HARTUTAKO ZENBAIT ERABAKIREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA

Esp.-zk.: 14/2017

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2017ko urtarrilaren 20an, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Arabako Karate Federazioko presidentek, errekurtsua aurkeztu zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordean (hemendik aurrera, Batzordea); errekurtsu horretan, Karateko Hauteskunde Batzordearen 2017ko urtarrilaren 11ko 1 zenbakidun ebazpena eta hauteskunde-batzorde horrek hartutako zenbait erabaki aurkaratu zituen eta erabaki horiek deuseztatzea eskatu zuen.

Errekurritutako lehenengo erabakiari dagokionez –errekurtsogilearen arabera Euskal Karate Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 1 zenbakidun ebazpena da–, espedientean dauden datuetatik ondorioztatzen da Hauteskunde Batzordearen errekurritutako ebazpena ez dela 1 zenbakiduna (haren hartzailea ez baita errekurtsogilea), baizik eta 2 zenbakiduna (bai baita hartzailea).



Horri dagokionez, errekurtsogileak ez ditu zehaztu inpugnazioaren arrazoiak; errekurritzeko asmoa duela baino ez du adierazi. Ebazpen horretan, hauteskunde-prozesuaren deuseztasun-deklarazioaren eskaera ukatu egiten da, bai Federazioak esku hartzeko aldiaren luzapena, bai **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunaren izendapena Hauteskunde Batzordetzat legearekin bat datozela iritzita, betiere Euskadiko Kirol Federazioak arautzen dituen Dekretuaren 19.7 artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Kiroletako zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren arabera.

Bestalde, errekurritutako ebazpenean hauteskunde-prozesuaren publikitateari (erroldak) buruzko alderdiak ere aipatzen dira; beraz, horren inpugnazioaren argudioak hurrengo paragrafoan aipatuko diren erabakiei dagozkien argudioen berdinak izango direla pentsa dezakegu.

Batzorde horrek *“hartutako erabakiei”* dagokienez, zehazki zein erabaki aurkaratzen dituen zehazten ez duen arren, badirudi hauteskunde-prozesua abiarazten duen 2016ko abenduaren 21eko Ebazpenari buruz ari dela, eta aipatu ditu argudioak.

Honela dio:

Lehena.- Kirol-arloko lurralde-federazioetara ez da bidali hauteskundearen aginduan eta hauteskunde-erregelamenduan bertan aurreikusitako gutxieneko informaziorik, eta horren ondorioz, babesgabetasuna eta benetako kaltea eragin dira; izan ere, zenbait datu aurkaratzeak egiteko aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunean argitaratu ziren.

2016ko abenduaren 21eko Ebazpenaren bitartez hauteskunde-prozesuak abiarazten dira, eta hauteskunde-errolda esaten zaiona



onartzeaz gain, errolda horiek argitaratu behar direla agintzen du; dena dela, aurkaratzeko epea igarotakoan argitaratu ziren (urtarrilaren 10ean)

Hortaz, hauteskunde-prozesuak arautzen dituen Aginduan xedatutakoa ez da bete, 2016ko abenduaren 21eko Erabakia eta egutegia baino ez baitziren argitaratu; ez datu gehiago, ez dokumentu gehiago ere, hauteskunde-erregelamendua barnean hartuta.

Bigarrena.- Aurrerago balizko hauteskunde-erroldatzat argitaratzen den hori ez dela hauteskunde-errolda, eta ezin duela izan, federazioaren idazkari organikoaren ziurtagiri bat baino ez delako, eta gainera, idazkari hori euskal federazioaren egungo presidentea jabea den gimnasio bateko langilea da.

Hauteskunde-errolda deitzen baldin bazaio, honako aurreikuspen hau bete behar du:

22. artikulua.- Hauteskunde erroldako inskripzio bakoitzeko edukia.

Hauteskunde erroldako inskripzioak, gutxienez, izen-abizenak, nortasun agiria, sexua eta federazio-lizentziaren zenbakia jasoko ditu pertsona fisikoen kasuan. Pertsona juridikoen kasuan, berriz, inskripzioak gutxienez sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko kodea, eta federazio-afiliazioaren zenbakia bilduko ditu.

Egia da euskal federazioetan, hauteskunde-errolda lurralde-biltzarrek osatzen dutela, hautesleen eta hautagaien aldetik, baina euskal federazioen prozesuan beste errolda bat ere badago eta, hortaz, baita hauteskunde-errolda ere, baina hori aurrekoa bezain garrantzitsua da erabateko hedapen eta informazioari dagokienez; lurraldeko federazio bakoitzeko kideen erroldaz ari gara, estamentu bakoitzaren arabera, horren arabera erabakitzen baita estamentu bakoitzean probintziako federazio bakoitzari zenbat ordezkari dagozkion, proportzioan.

Hala badagokio, errekurritu ahal izateko, ez da nahikoa ustezko kide kopuru batek ziurtagiria egitea, baizik eta kide bakoitza NANarekin eta



IFZrekin identifikatu behar da, zenbakiaren atzean pertsonak daudela egiaztatzeko eta klubak, direnak direla, dagozkien federazioan erregistratuta daudela, kirol-erakundeen erregistroan karateko modalitatean daudela eta bakoitzak dagokion IFZ duela egiaztatzeko.

Hirugarrena.- Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen du:

1. 2017ko urtarrilaren 11ko ebazpen eta erabakiak bildutako erabakiak deuseztatzea eta, horren arabera, jarduketak atzera ekar daitezen erabakitzea; horretarako, hauteskundeetako dokumentazio guztia – hauteskunde-errolda eta hauteskunde-erregelamendua barnean hartuta– hasieratik eta inpugnazio-epearen barruan argitara dadin agindu behar da.

2.- Ordezkarien esleipena kalkulatzeko kideen errolda publikoa izatea eta argitaratzea, kalkulua baliozkoa den ala ez erabakitzeko irizpideak izate aldera; izan ere, estamentuen liburua ez denez publikoa, ziurtagiri soilarekin ezin da jakin kontabilizatutako kideak falta diren ala sobera ote dauden.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsio hori tramitatzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion eta audientzia-tramitea eskaini zion EKFarri.

Hirugarrena.- Euskal Karate federazioaren Hauteskunde Batzordeak batzorde honek bidalitako errekerimenduari erantzun dio, eta alegazio-idazkia aurkeztu zuen 2017ko otsailaren 10ean.

Idazki horretan dioenez, *“Batzorde honek, jarduketa guztiak zuzenbidearen arabera kotzat hartzen badira ere, hainbat idazki aztertu ostean (zenbait kasutan, eskaera soilak baino ez), hauteskunde-prozesua erabat gardena eta bermatzailea izate aldera, deuseztasun partziala erabaki zuen eta, 2017ko urtarrilaren 31ko aktan (3 zenbakidun akta, honi atxikita dagoena), hauteskunde-*



egutegi berria onartu zen eta errolda guztiak ez ezik, akta horretan argitaratu behar direla erabaki eta agintzen diren dokumentu guztiak ere argitaratu dira. Batzorde honek esanbidez eskatu dio Arabako Federazioari errolda bidaltzeko, atxikitako dokumentuetan jasota dagoenez. Horregatik guztiagatik, Batzordearen ustez, deuseztasuna dakarren akatsik izanez gero, erabaki berriek ondoriorik gabe uzten dute planteamendu oro. Batzordeak, hortaz, dagozkion ondorioak izan ditzan, espediente bidaltzea onartu du eta, espediente horrekin batera, 2017ko urtarrilaren 31tik aurrera jarduketa guztiak ere bidaliko dira.”

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzeko eta ebazteko*».

Bigarrena.- Planteatutako errekurtsioaren xedea bi erabaki errekurritzea da. Bietatik lehena, erabaki honen lehen zuzenbideko oinarrian jada azaldu dugunez, EKFAren Hauteskunde Batzordearen 2 zenbakidun ebazpena da. Ebazpen horretan, hauteskunde-prozesuaren deuseztasun-deklarazioaren eskaera ukatu egiten da, bai Federazioak esku hartzeko aldiaren luzapena, bai **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunaren izendapena Hauteskunde Batzordetzat legearekin bat datozela iritzita, betiere Euskadiko Kirol Federazioak arautzen dituen Dekretuaren 19.7 artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Kiroletako zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren arabera.



Egitate horiei dagokienez, zera esan behar dugu, Batzorde honek ez duela eskumenik Hauteskunde Batzordeko kideen izendapenarekin lotutako alderdiak ebazteko, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluari jarraikiz.

Bigarrenari dagokionez, *“jarraian zerrendatuko diren erabakiak”*, EKFAren Hauteskunde Batzordeak egiaztatu du prozesuaren deuseztasun partziala deklaratzeko erabaki duela (alegazioak eta 2017ko urtarrilaren 31ko 3 zenbakidun aktaren kopia), prozesua gardena izan dadin, eta errekurtsogilearen eskaerak onartuta. Erabaki berri horrek ondorio hauek izango ditu:

1.- Hauteskunde-egutegia aldatzea; izan ere, egutegi berria onartu behar da eta akta honekin batera argitaratu, bai Euskal Federazioaren web-orrian, bai lurralde-federazioen orrietan.

2.- Bizkaiko eta Gipuzkoako Federazioek helarazitako erroldak argitaratzea. Arabako Federazioak ez du helarazi hauteskunde-prozesuan erabilitako errolda; beraz, Euskal Federazioaren eskura iristen den bezain laster argitaratuko da.

3.- Euskal Federazioaren Idazkaritzak egindako ziurtagiria argitaratzea; ziurtagiri horretan, lurralde historiko bakoitzean eta autonomia-erkidegoaren eremuan guztira zenbat lizentzia dauden agertzen da.

4.- Batzordeak 2016ko abenduaren 21ean hartutako hirugarren erabakia oso-osorik berrestea, Euskal Karate Federazioaren Batzar Nagusiko kideen kopuruari eta estamentuaren nahiz lurraldearen araberako esleipenari dagokienez, betiere errolden arabera.



5.- Prozesu honetan aplikatu beharreko Hauteskunde Erregelamendua argitaratu izanaren berri jasota geratzea bai Euskal Karate Federazioaren orrian, bai lurralde-federazioetako orrietan.

6.- Hauteskunde-egutegiko aldi edo fase bakoitzaren hasieran eta bukaeran egutegi hori webgunean argitaratzea.

7.- Hauteskunde Batzordearen erabateko legitimitatea berrestea, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak erabakitakoaren arabera.

Horretarako, EKFAren web-orrian kontsulta egin dugu eta egiaztatu dugu aktaren edukia betetzen dela.

Ondorio gisa, eta azaldutakoa aintzat hartuta, errekurtsu honen helburua galdu egin da gerora. Horrenbestez, egoera hori deklaratu egin behar da eta arrazoi hori dela medio errekurtsua ez da onartu behar.

Halaber, Hauteskunde Batzordearen 2 zenbakiko ebazpenaren inpugnazioari dagokionez, hori ere ez da onartuko Batzorde honek ez duenez eskumenik planteatutako errekurtsua ebazteko.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, Arabako Karate Federazioaren presidentek, EKFAren Hauteskunde Batzordearen 2017ko urtarrilaren 11ko 2 zenbakidun ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsua ez onartzea.

Halaber, Federazio horren hauteskunde-prozesuan hartutako erabakien aurka aurkeztutako errekurtsua ere ez onartzea; errekurtsu horretan, erabaki horiek deuseztatzea eskatzen zuen.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsu-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 16a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea